


Nafarroako Erribera



TURISMO BULEGOA:

TUTERA
 Foru Enparantza 5-6
 (+34) 948 848 058
 oit.tudela@navarra.es

TURISMO INFORMAZIOZAKO GUNEA
 (urte osoan irekita)

TURISMO INFORMAZIOZAKO GUNEA
 (denboraldian irekita)

- Zer ikusi
- Donejakue Bidea
- Inaziotar bidea

Tarazonicaren bide berdea - Natur Bidea

Museoa - Interpretazio zentroa

Natura-parkea

Leize-etxeak


Bainuetxeak

Behatokia

Abentura-parkea

Bainurako eremua

Bidexkak



Reyno de **Navarra** **Nafarroa**ko Erresuma

Gobierno de Navarra **Nafarroako** Gobernua



www.visitnavarra.es

@visitnavarra.es



Nafarroako Erribera

Nafarroa hegoaldean kokatua, Erribera lurralde harrigarria da, Ebroko haranean dagoena geografikoki. Ordokietako paisaia du, sahatsez eta makalez beteriko ibarbasoz hornitua, eta kontraste handia egiten du Errege Bardeetako Natura Parke ikusgarri eta erdi-mortuarekin.

Ebrok eta haren ibaiadarrek Erribera baratzearen paradisu bihurtzen dute. Bertako baratze-tradizioa arabiarren garaitik dator.

Zer ikusi

- 1. ERREGE BARDEAKO NATURA PARKEA:** UNESCO Biosferaren Erreserba izendatu du (Aguilares gaina, Castildetierra, Cortinas sakana, artzainaren monumentua, Pilatosen begiratokia ...). Bisitagarria autoz, quadez, BTTz, segwayz, buggyz edo zaldiz.
- 2. TUTERA:** hiru kulturako hiria, Ebroko Donejakue Bidea eta Inaziotar Bidea zeharkatzen dituena. Bisitatzeko: Katedrala, azken judizioko portada eta klaustroa, Dekanoaren jauregia, Huarteko markesaren jauregia, San Adriango markesaren jauregia, almirantearen etxea, Magdalena eliza, Monreal dorrea, Dekanoaren museoa, Muñoz Sola museoa, Avant-garde nazioarteko erakusketa (aire zabaleko arte garaikideko muralak), Baratzea eta Mejana Ezagutzeko Zentroa.
- 3. MARTZILLA:** gaztelu-jauregia.
- 4. ARGUEDAS:** Sendaviva Naturaren Parkea, leize-etxeak, Bardenas Arte y Turismo Museoa.
- 5. CORELLA:** Arte barrokoaren multzo historikoa, Arrosarioko Ama Birjinaren eta San Migelen elizak, Virto de Vera Etxea, Kateen Etxea, Beneditarren komentua-Arte Sakroaren Museoa.
- 6. CASCANTE:** Erromeroaren Amaren Basilika, museo etnografikoa eta gun e termoludikoa.



2. Foru Enparantza



2. Katedrala



5



9



6

- 7. CASTEJON:** Castejóngo Museoa eta Energiaren Gela.
- 8. ABLITAS:** Lorko aintzira.
- 9. FITERO:** Fiteroko monasterioa, abade-jauregia, Andre Mariaren errege eliza eta bainuetxea.
- 10. FONTELLAS:** el Bocal (interes kultureko ondasun izendatutako ingurune paisajistiko, arkitektoniko, historiko eta hidraulikoa).
- 11. SAN ADRIAN:** "La fábrica Vieja" kontserba museoa.
- 12. FALTZES:** Arte barroko jauregi-etxeak.
- 13. TULEBRAS:** Espainian sortutako emakumeen lehen monasterio zistertarra.
- 14. CORTES:** Burdin Aroko Alto de la Cruz aztarnategi arkeologikoko erakusketa, gaztelua.
- 15. TARAZONICA TRENAREN BIDE BERDEA:** Tuteratik Tarazonara, 22 kilometro; horietatik 13 Nafarroan daude.
- 16. EBROKO DONEJAKUE BIDEA eta 17. INAZIOTAR BIDEA:** 66 km Erriberan, Castejón, Tuter, Ribaforada eta Cortes herrietan.



16



18



19

Festak eta tradizioak

Aste Santua Erriberan:

- * **(18) El Volatín Tuteran:** Larunbat Santua. Interes Turistiko Nazionaleko jaia.
- * **Aingeruaren Jaitsiera Tuteran:** Pazko igandea. Interes Turistiko Nazionaleko jaia.
- * **Corellako Ehorzketa Santuaren** Prozesioa. Interes Turistiko Nazionaleko jaia.

Tuterako jaiak: uztailaren 24tik 30era.

(19) Faltzesko El Pilón entzierroa, abuztuan.

Sanmigelada: irailean.

Tuterako eta Erriberako **barazkien jaiak:** udaberria.

Inverdura: negua.



Gastronomia

Ez ahaztu **barazki naturalen zein potekoen erreinuan** zaudela, eta elikagai osasungarria eta nutritiboa izateaz gain, ahorrako gozamina ere badirela. Denboraldian bertako barazkiez gozaten ahalko dugu: **orburuak, Tuterako kukuluak, kardu zuria** eta gorria, borraja, **Lodosako pikillo piperrak** edo **zainzuri** guriak. Menestran aurkezten direnean, zaporea eztabaidaezina da. Menestran ezinbestekoak dira Erriberako lurretan landutako orburuak, ilarrak, zainzuriak eta baba freskoak.

Lur honek ematen dituen barazkien onurak goraiatzeko, Tuteran eta Erriberan hainbat jardunaldi gastronomiko egiten dira (Karduaren Eguna Azkoienen, Gereziaren Eguna Milagron, Baratxuriaren Eguna Faltzesen...). Jardunaldi horietan hainbat proposamen eskaintzen dira, hala nola pintxo eta menuen ibilbideak, bisita gidatuak, barazkiekin prestaturiko plateren lehiaketak, tailerrak, hitzaldiak, kontzertuak eta Nafarroako Erriberan hainbesteko harrotasuna sortzen duen produktu horrekin lotutako hainbat jardura.

Erribera **Nafarroako Ardoaren Ibilbidearen** parte da.



Web interesgarriak

www.rutadelvinodenavarra.com

www.turismoriberanavarra.com

<https://turismotudela.com/>

Ezinbesteko bideak Nafarroan



Bardeetako liburuxka



Tuterako plana



Antzinako telefono-kabinak berrerabiliz, Erriberan **6 gune daude turismo-informazio digitalerako**, udalerrri hauetan: Arguedas, Corella, Cortes, Cascante, Tuter eta Martzilla.